

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakaria eta Osasuneko kontseilaria Nafarroako Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Klinikoko langileen plataformarekin bildu dira

*Langile horiek osasun-arretako sare publikoan sartzeko zer arrazoi dauden azaldu die Gobernuak*

Martes, 19 de enero de 2016

Uxue Barkos Lehendakaria eta Osasuneko kontseilari Fernando Dominguez gaur goizean bildu dira Nafarroako Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Klinikoko langileen plataformako ordezkaritza batekin.

Bileran, Nafarroako Unibertsitate Kliniko eta Nafarroako Unibertsitateko langile horiek osasun-arretako sare publikoan sartzeko zer arrazoi dauden azaldu die Nafarroako Gobernuak; horrez gain, Nafarroako Unibertsitate Klinikoarekin lanean jarraitzeko bokazioa eta borondatea erakutsi die Nafarroako gizarte guztirako onuragarria den gai guztietan.

Gainera, Gobernuak zehaztu duenez, lantalde bat sortuko da, eta bertan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Unibertsitate Klinikoak parte hartuko dute honako paziente hauen kasuak aztertzeko: diagnostikoko prozesuan dauden pazienteak, prozesu akutu edo azpiakutuengatik tratamenduan daudenak edo gaitz larriak dituztenak; hala, era iragankor batean, Nafarroako Unibertsitate Klinikoan arreta jasotzeko aukera izan ahalko dute.

Plataformaren aldetik, honako hauek izan dira: Ignacio López Goñi (eleduna), Nagore Gil, Jorge Martínez, María Asun Santamaría, Beatriz Paloma eta María Guillén.



Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Unibertsitate Klinikoak lantalde bat sortuko dute Klinikian beren tratamendua zer pazientek amaitu dezaketzen aztertzeko.